

Erref.- AIP/Goi mailako teknikaria

EBAZPEN-PROPOSAMENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA ALDI BATERAKO LAN-POLTSEN 2021EKO ZONIFIKAZIO-PROZESUAREN BEHIN BETIKO ZERRENDAK.

Gerente jauna:

GUFEn Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 13an egindako bilera arruntean, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpideak onetsi zituen, zonifikazio berriaren eranskinarekin batera. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO, 76. zk., 2018ko apirilaren 20koa, eta okerren zuzenketa BAOren 85. zenbakian, 2018ko maiatzaren 4an) eta GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian argitaratu zen.

Erabaki horren bidez, ahalmena eman zitzaion GUFeko gerenteari testu horretan ezarritakoa gauzatzeko, eta, ondorioz, orain, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kategorien arabera aukeratu beharra xedatu zuen, dokumentuan ezarritako epean eta moduan.

Gerentziak aurtengo maiatzaren 5ean emaniko ebazpen baten bidez, xedatu zen argitara ematea kategorია bakoitzeko behin-behineko zerrendak, eta, aldi berean, errakuntza materialak zuzentzeko epea irekitzea. Behin epe hori amaituta, behin betiko zerrendak onartzen dira, eta kasuan kasuko lan-poltsak eratzten. Horiek guztiak 2021eko maiatzaren 24an sartuko dira indarrean.

Gai honen eskumena GUFEn gerente jaunari dagokio gaikuntzan bertan eta maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Izan ere, foru-arau horrek institutu hori eraentzen duten estatutuak aldatu zituen.

Beraz, hau sinatzen dutenak honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizute, aztertu eta onar dezazun:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Onartzea kategoría bakoitzean zonifikazio-prozesuaren ondorioz eraturako behin betiko zerrendak, ebazpen honen eranskinean jasoak. Horiek guztiak 2021eko maiatzaren 24an sartuko dira indarrean.

Bigarrena.- Xedatzea zerrenda horiek (eranskinean daudenak) GUFEn iragarki-oholean eta web orrialdean argitara daitezela.

Bilbon, 2021eko maiatzaren 18an.

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOKO

PERTSONAK ZUZENTZEKO DEPARTAMENTUKO

BURUA

BURUA

Sin.: M^a José Larrinaga Artetxe

Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GUFeko gerentearen 2021eko maiatzaren 18ko EBAZPENA. Aurreko proposamena ikusi ondoren, osorik onartzen dut. Aurrekoa bete bedi.

Sin.: David Latxaga Ugartemendia